



## MOVIPREP® KOLONOILEOSKOPIA PEDIATRIKOA

### Zer da proba hau?

Zunda bat (endoskopia) sartzen da uzkitik, heste lodia eta, batzuetan, heste meharreko azken zentimetroak aztertzeko. Gainera, polipoak erazteko aukera ere ematen du.

### Non egiten da proba?

9 urtetik gorako haurrei, Miaketa Osagarrien Unitatean, 7. solairuan – AUOko Txagorritxu egoitzako D eremua –; eta, 9 urtetik beherakoei, 1. D solairuko ebakuntza gelan.

### Nola prestatu behar dut probarako?

Proba ondo egiteko, ezinbestekoa da hestea guztiz garbi egotea. Horretarako, zehatz-mehatz bete behar da prestakuntza hau:

- **PROBA EGIN BAINO BOST EGUN LEHENAGOTIK**, ez da hartu behar BURDINA osagarriarik duen botikarik.
- **MIAKETA BAINO HIRU EGUN LEHENAGOTIK**, ez da hartu behar zuntza duen elikagairik, frutak eta barazkiak batez ere (ez da KIWIRIK jan behar). Haurrak idorreria handia badu, proba egin baino BOST egun lehenago ekin beharko dio dietari.
  - Elikagai hauek har ditzake: fruta-zuku iragaziak, zopak, saldak, ogi txigortua, zuntzik gabeko gailetak, Yorkeko urdaiazpikoa, plantxan egindako haragia, arrautzak, gazta, jogurta, arraina, pastak (semolak, espagetiak eta abar), arroza.
  - Ezin ditu hartu: frutak, entsaladak, lekaleak (babarrunak, garbantzuak, dilistak), barazkiak, ogia, hestebeteak, kiwiak, marrubiak, fruitu lehorrak (almendrak, intxaurrak eta abar).
- **PROBA EGIN AURREKO EGUNEAN**, dieta guztiz likidoa hartu beharko du: koiperik gabeko saldak, infusioak, zuku iragaziak edo edari isotonikoak.

Kasu batzuetan, litekeena da pediatrik ahotik hartzeko Puntualex® tantak agintzea. Zure haurraren kasua hori bada, proba egin aurreko eguneko 16:00etan hartu behar duzu, esandako dosian (ospitaleratu baino ordu-erdi lehenago).

### Noiz ospitaleratu behar da haurra?

Haurrak proba egin aurreko egunean joan behar du ospitalera, 16:30ean.

Proba egitera etortzen denean, **eskaera-bolantea** eta **baimen informatua**, sinatuta, ekarri behar ditu

### Nola egiten da proba?

**MOVIPREP®** izeneko prestakin bat emango zaio; bi zorroko kaxa bat da, eta 1 litro uretan disolbatzen da zorro horien edukia.

2 urtetik gorako haurretan, prestakina ahotik ematen saiatzen da lehenik. Ondo jasaten ez badu edo 2 urtetik beherakoa bada, zunda nasogastriko bat jartzen zaio, eta handik ematen zaio prestakina.

Miaketan, ohatila batean ezkerreko aldearen gainean etzanda eta belauak tolesturik egongo da haurra. Zunda bat sartuko diote uzkitik, eta, haren bidez, hestea miatuko diote. Ondo ikusteko, airea sartu behar da; hori dela eta, ondoeza nabaritu du, abdomena puztean. Batzuetan, miaketan egiten ari zaizkion bitartean, medikuak gorputz-jarrera aldatzeko eskatuko dio.

Proba egitean poliporen bat aurkitzen bada, erauzi egingo da.

Probak 45 minutu irauten du, gutxi gorabehera.

Miaketa lasaigarriak emanda egiteko programatu bada, zain periferiko bat hartuko diote haurrari, eta behaketan egongo da miaketa egin eta hurrengo 45 minutuetan.

### Zer egin behar da probaren ondoren?

Proba eskatu duen medikuari bidaliko zaio miaketaren behin betiko txostena.

Bizitza normala egin ahal izango du haurrak, eta ohi bezala jan. Haizeak kanporatu ahala, abdomeneko ondoeza desagertuz joango zaio.

**OHAR GARRANTZITSUA:** ARRAZOA EDOZEIN DELA ERE HAURRA EZIN BADA ETORRI MIAKETA EGITERA, DEITU, MESEDEZ, TELEFONO-ZENBAKI HONETARA: 945 00 71 00.